

Akabo, listo

PATXI LOPEZEN Gobernuarenak egin du. Akabo. Listo. Hauteskundeak noiz, hori da orain Eusko Jaurlaritzak pentsatu beharko duena eta, edozein kasutan, urtea amaitu aurretik izatea litzateke logikoa. Gobernu hau koordinada zehatz batzuetan sortu zen: ezker abertzalearen ilegalizazioa, ETA indarrean oraindik, Zapateroren Gobernu Madrilen eta krisiaren hastapena. ETak iazko urrian bere jardura armatua amaitutzat jo zuenetik, aldiz, PSE-PP Gobernuaren sorrera koordinadak erabat aldatu dira eta, gutxiengoan geratzekotan, logikoa da beste gobernu berri batek erantzutea sortutako errealitate berriari.

Legitimitate politikoaren ikuspegitik hankamotz jaio zen Lopezen Gobernu; baina ez da ahanzi behar, halaber, hauteskunde haietako bigarren alderdia izan zela, EAJren atzetik. Eta horrez gain, nola aterako ditu, esate batera, udalen edo aurrezki kutxena moduko lege garrantzitsuak? Egoe- ra eta hauteskunde giro honetan, gutxi dira beste alderdiekin Lopezek negoziatu ahal izango dituenak. Gainerako indar guztiak ondo arduratuko dira bere bakardadea ahalik eta gehien azpimarratzen, eta horrela, azkenean, hauteskundeei begira bozgorailu erraldoia den Lehendakaritza hori, norbere aurka bihurtzen da bizpahiru porroten ondoren. Adibide bat: Jaurlaritza 2013ko aurrekontuak lantzen ibiliko da dagoneko, edo laster ekingo dio, uda ostean alderdiekin lanean hasteko. Norekin negoziatu behar ditu hauteskunde atarian? Logikoa, urrian edo azaroan hauteskundeak deitzea litzateke. Izango ote du aurkari espetxeratutako Arnaldo Otegi, ezker abertzaleko analistaren batek iradoki duen gisan?



ALDATU finantzen mundua zulo beltz horrek dena irentsi aurretik. Hautsi egungo Europako diruaren ziklo madarikatua, bestela jai. Ez dago egungo krisi zikloa moztuko duen beste biderik. Hau da zulo beltzaren zirkuitua: EBZk 1.000 milioi euro eman dizkio maileguan Bankiari, %1eko interesean, gero honek Espainiako Gobernuari %4an. Bankiak 3 puntuko etekina ateratu du, baina hala ere galerak ditu, eta Rajoyren Gobernuak bere gain hartzen du beste 1.000 milioi euro ordainduz. 1.040 milioi euro gastatu ditu. Orain bai, orain Bankia errentagarria da eta berriz pribatizatu daiteke, bere jabe eta kudeatzaileek osteratu diru asko irabaz dezaten.

Zenbakiak aldatuta, hori da Europar Batasunean eta Espainian gertatzen dena. Zergatik? Ekonomiak funtziona dezan bankuak funtsezkoak direlako. Jakina, are eta funtsezkoagoa handiagoa bada.

Zazpi aurrezki kutxekin sor dadila, beraz, banku handi bat: 10.000.000 bezero-aurrezle, 22.000 enplegatu eta 44.000 akziodun. Listo da Bankia, bere tamainagatik inolaz ere erortzen utzi ezin daitekeena. Eta Santander eta BBVAren osasuna askoz hobeagoa ote da akaso?

Ados, bankuak funtsezkoak dira ekonomiak funtziona dezan: baina orduan zergatik ez dio ematen zuzenean mailegua EBZk PPren Gobernuari, eta honek 1.040 milioi euro aurretuko luke? Baina ez, halakorik ezin da, EBko itunek ez diotelako uzten EBZri gobernuari zuzenean mailegatzen. Eta askok pentsatzen du, hiru hilabetetan posible bada Gobernuak zero defizitarekin itotzen dituen egonkortasun ituna eraikitzea, zergatik ez da posible beste hirutan finantza arauak aldatzea eta EBZk dirua gobernuari zuzenean mailegatzea? 2012ko Espainiako Gobernuaren aurrekontuko partida batek zera dio: "28.300 milioi euro bankuei interesak ordaintzeko".

Ondorioak sufritzearen poderioz, greziarrek hobeto ulertu dute zulo beltzaren kontua eta horrexegatik, herritarren artean gero eta indar handiagoa hartzen ari da eurogunetik ateratzearena. Eta, inkesten arabera, hauteskundeak berriz errepikatuko balira, seguruenik gertatuko den lege, Syriza ezkerreko alderdia litzateke garaile eta gobernu eratzeko moduan. Ondoren, ekonomia nobel sari Paul Krugmanek dioenez, Grezia eurotik ateratu eta Espainian *corralittoa* jarriko litzateke indarrean. Espainian ere herritarrek bozkatu dute PP, bere garaian greziarrek PASOK edo Demokrazia Berria bozkatu zituzten moduan. Nor ote Espainiako Syriza?

